

Interes orokorreko xedapenak, buletineta argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko urriaren 9tik 15erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/10/15

- **Hitzarmen kolektiboa.** - Ebazpena, 2021eko urriaren 5koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den kredituko finantza-establezimenduentzako hitzarmen kolektiboa. [16788 xedapena - 25 or.](#)

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/10/11

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.** - **Presioko ekipamenduak.** - 809/2021 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Presio-ekipoen eta horien jarraibide tekniko osagarrien Araudia onesten duena. [16407 xedapena - 138 or.](#)

2021/10/12

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** - **Kultura-sektorea. Zergen arloko neurriak.** - 14/2021 Legea, urriaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen den maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege-dekretua. Horren bidez, neurriak onesten dira kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onesten dira, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. [16477 xedapena - 22 or.](#)
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Antolamendua.** - 880/2021 Errege Dekretua, urriaren 11koa, Gizarte Mugimenduen Artxibo Historikoa sortzen duena. [16479 xedapena - 9 or.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.** - **Hitzarmenak.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 30ekoa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bidez argitaratzen den Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duten Mutualitateen eta Gizarte Segurantzako Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateen Elkartearen Hitzarmena, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duten mutualitateek babesten dituzten langileen historia klinikora telematikoki sartzeko, kontrol eta segimendu medikoa behar duten Gizarte Segurantzako prestazioen kasuan. [16536 xedapena - 14 or.](#)

2021/10/14

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** - **Premiazko neurriak.** - Akats-zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 18/2021 Errege Lege-dekretua, irailaren 28koa, enplegua babesteko, susperraldi ekonomikorako eta lan-merkatua hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa. [16583 xedapena - 1 or.](#)

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Katastro balorazioa.** - HFP/1104/2021 Agindua, urriaren 7koa, higiezin erreferentziako balioak zehazteko aplikatu beharreko gutxitze-faktorea onesten duena. [16584 xedapena - 2 or](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. - Aireportuak.** - Ebazpena, 2021eko urriaren 13koa, Garraioaren, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko urriaren 11ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia. Horren bidez, interes orokorreko aireportuetako terminaletan sartzeko mugak aldatu dira. [16585 xedapena - 2 or.](#)

2021/10/15

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 29koa, Gizarte Segurantzaren Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez 2021eko abuztuaren 3koaren akatsak zuzentzen diren. Ebazpen horren bidez, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duten mutualitateei koefizienteak aplikatzeko terminoak ezartzen dira, hain zuzen ere, inorentzat lan egiten duten enpresa elkartuetako langileen kontingentzia arruntetatik eratorritako aldi baterako ezintasunen ondoriozko prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak. [16798 xedapena - 1 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/10/13

- **LEHENDAKARITZA.** - 4/2021 LEGEA, urriaren 7koa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. [5201 xedapena - 18 or.](#)
- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** - 221/2021 DEKRETUA, urriaren 5koa, Euskal Kultura Ondarearen Erakundearteko Organoaren osaera, antolamendua, funtzionamendua eta zereginak arautzen dituen. [5202 xedapena - 9 or.](#)

2021/10/14

- **OSASUN SAILA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 25/2018 Dekretua, otsailaren 20koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko Legean jasotako erakunde egitura garatzen duena. [5228 xedapena - 1 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/10/13

- **Arabako Foru Aldundia. - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2021 Foru Dekretua, urriaren 5koa. Onespina ematea TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegiari. [3376 xedapena - 13 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/10/13

- **Lan eta Enplegu Saila.** - Ebazpena, 2021eko urriaren 4koa Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariak emanda. Honen bitartez, eta Busturiako Udalari dagokionez, udal horretan 2021eko irailaren 15eko Ebazpena aldatzen da, 2022. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena, udalerrri horretarako tokiko jaiegunaren izendapenean egindako akatsagatik. [III-208 xedapena - 1or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/10/11

- **GOMENDIOAK.** - Kontseiluaren 2021/1782 (EB) Gomendioa, 2021eko urriaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den EBra funtsezkoak ez diren bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzko 2020/912 (EB) Gomendioa. [L 360/128 xedapena - 4 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO